

## **BERRIA Taldeko langile batzordearen oharra Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza jaitsieraren inguruan**

BERRIA Taldeko langile batzordeari min handia eman dio Eusko Jaurlaritzak BERRIAri egindako diru laguntzen murrizketa azaltzeko egindako adierazpenak. Izan ere, BERRIAk 2014an aurrekontua txikitu izana erabili du Eusko Jaurlaritzak bere erabakia zuritzeko, eta, hain justu, langileok hartu dugu geure gain aurrekontuak estutzearen zama.

Jakina da azken urteotan aldi berean bi krisi pairatzen ari garela. Batetik, prentsa idatzia, oro har, etengabeko salmenta jaitsierari aurre egiten ari zaio; bestetik, krisi ekonomikoaren kalteei. Testuinguru horrek beste sektore batzuetako langileak gogor jo dituen bezala, gogor jo gaitu BERRIAko langileok ere. 2008tik gure soldata ez da batere handitu, eta paga bat eta erdi galdu dugu; 2013tik, gainera, soldata jaitsiera ere izan dugu. Azken sei urteotan BERRIAko langileok, batez beste, diru sarreren %11,1 galdu dugu. Hamar hilabetez kobratu gabe egotearen pareko galera da. Murrizketarik gabe jasoko genukeen ordaina baino %17 txikiagoa da gure soldata gaur egun —kontuan izanda BERRIAko langileen soldata Hego Euskal Herriko batez bestekoa baino %24 apalagoa dela—. BERRIA argitaratzen jarraitzea posible izan zedin eta lanik gabe ahalik eta langilerik gutxien gera zedin onartu behar izan dugu soldata jaistea. Areago, lantaldea txikiagotu egin da, hainbat lanpostu kenduta.

2014an BERRIAren aurrekontua murriztu izana ezinbesteko neurria izan da aurrera egin ahal izateko. Neurri horrek kostu handia izan du, besteak beste, langileon eta geure senideen bizibaldintzetan. Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu ez dezala erabil BERRIA Taldeko langileok egindako ahalegina diru laguntzen murrizketa zuritzeko.

**BERRIA Taldeko langile batzordea.**